



ERANSKINA

**GARDENTASUNARI ETA INFORMAZIO
PUBLIKOA ESKURATZEARI BURUZKO
URTEKO TXOSTENA
(2017. urtea)**

Egiaratzeko helbidea Dirección de comprobación
<https://e-s.araba.eus/wps/portal/ConsultaCove>

Ziurtagiriaren zk. Código de Verificación
bc6D-iffj-dYn4-Wv5T



2018ko maiatza



Sarrera

2017ko otsailaren 21ean sartu zen indarrean 1/2017 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Sektore Publikoaren Gardentasunari, Herritarren Parte Hartzeari eta Gobernu Onari buruzkoa. Ordutik hona, Arabako Foru Aldundiak aipatutako araua zuzentasunez betetzeko neurriak ezartzen eta onesten lan egin du. Sarrera honetan, gardentasunaren, parte hartzearen eta gobernu onaren alorreko aurrerakuntzei testuingurua emateko, neurri nagusi hauek jaso dira:

2017ko maiatzean sail arteko lantaldea sortu zen Gobernu Irekiaren Ataria sortzeko. Irailean gardentasuneko eta herritarren parte hartzerako bi teknikari sartu ziren taldera, eta horiek zuzenean Diputatu Nagusiaren Kabinetearen menpe daude.

Egitura Dekretuak aldatu ziren 1/2017 Foru Araura egokitzeko. Foru Arau horretan bertan ezarritako funtzioak egikartzeko administrazio unitateetako arduradunak zehazten dira gardentasuna, herritarren parte hartzea eta informazioa eskuratu ahal izatea sustatzeko. Ebaluazioa, gardentasuna eta herritarren parte hartzea kudeatzeko ardura duten administrazio unitateei lotutako funtzioen artean hauek daude:

- Publizitate aktiboari lotutako informazioa biltzea Gobernu Irekiaren Atari honetan hedatzeko: **araba.irekia.eus**.
- Informazioa eskuratzeko eskaerak izapidetzea eta ebazteko proposamena egitea.
- Barruko izapideak egitea, eskatzaileak informazioa eskuratu dezan.
- Bere sailean, gardentasunaren alorrean indarrean dagoen araudia betetzeari buruzko informazioa sortzea, gardentasunaren alorrean eskumena duen sailak sortu beharreko urteko txostenerako.
- Sailaren barruan gardentasuna, herritarren partaidetza eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erabilera sustatzea.

Gardentasun Foru Kontseilua sortu zen herritarrek informazio publikoa eskuratzeko jasotako ukatzei buruzko erreklamazioei erantzuna emateko. Kasu horiek berariazkoak edo ustezkoak dira, Arabako Foru Aldundikoak eta foru sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeetakoak.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko 29/2017 Dekretua onetsi zen.

2018ko martxoan Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Ataria aurkeztu zen jendaurrean: **irekia.araba.eus**. Atari horren bidez **publizitate aktiboko** informazioa eskuratzeko erazten da, eta horren bitartez egikaritu daiteke **informazio publikoa eskuratzeko eskubidea**.



Helburua

Txosten honen helburua Arabako Foru Aldundiak gardentasunari buruz egindako lanaren berri ematea da, eta Arabako Lurralde Historikoko Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren 1/2017 Foru Arauaren 28. artikulua betetzea 2017an zehar.

Txostenak honako alderdiei buruzko informazioa izan beharko du:

- a) Arabako Foru Aldundiko sail bakoitzak eta foru sektore publikoko gainerako erakunde bakoitzak noraino bete dituen publikotasun aktiboaren arloko betebeharrak.
- b) Gobernu Irekiaren Atarian gehien kontsultatutako edukiak.
- c) Zerbitzu bakoitzean informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen egikaritzea:
 - Aurkeztutako eskaeren kopurua.
 - Zenbat eskaera ebatzi diren.
 - Ebazpena emateko batez besteko epea.
 - Guztiz, partzialki edo hirugarren pertsonen aurkakotasunarekin onetsitako eskaera kopurua, eta azken kasu bi horietan, horretarako arrazoiak.
 - Ezetsitako edo onartu gabeko eskari kopurua eta horren arrazoiak.
 - Sarrien eskatzen den informazioa.
 - Eskatzailearen profila (adin tartea, sexua, eta eskarian erabilitako hizkuntza).
- d) Gardentasunaren alorrean foru araubidea aldatzeko iradokizunak.

Foru Gobernu Kontseiluari txostena aurkeztu ondoren, Foru Gobernu Kontseiluak Arabako Batzar Nagusiei bidaliko die eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Plataforma honetan argitaratuko da: **irekia.araba.eus**.

Bertan jasotako den informazioa atal hauetan banatuta dago:

- Gobernu Irekiaren Ataria: **ARABA IREKIA**.
- Publizitate aktiboa.
- Informazio publikoa eskuratzeko eskariak.



Gobernu Irekiaren Ataria:

ARABA IREKIA - irekia.araba.eus

1/2017 Foru Arauaren 4. artikuluan Gobernu Irekiaren Ataria arautzen da telekomunikazioetako sare publikoetan eskuragarri dagoen webgunea bezala. Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren eta herritarren arteko interakziorako lekua da; ekintza publikoa modu parte hartzailean eta erantzukizun partekatuarekin kudeatzera bideratuta dago, eta bertan gauzatzen dira gardentasunaren, parte hartzearen eta kontu ematearen printzipioak.

Helburu hauek dauzka:

- a) Herritarrentzako eskuragarri jartzea 1/2017 Foru Arauan oinarrituz publizitate aktiboaren betebeharrei lotutako informazioa.
- b) Herritarrei aktiboki entzun dakien sustatzea, eta orobat haien eta foru sektore publikoaren arteko elkarrizketa ere, jardun publikoa haien eskaerei erantzutera bideratzearen.
- c) Herritarrek gai publikoetan parte eta esku hartzeko bideak ezartzea, Arabako Lurralde Historikoaren gobernantzan lagundu dezaten jardule aktibo modura.
- d) Herritarren beharrianak identifikatu eta baliabideak eskuratzea, herritarrek benetan parte har dezaten gai publikoetan.

Gobernu Irekiaren Atarian Nazioarteko Gardentasunak ezarritako adierazleei buruzko informazioa ere argitaratzen da, baita Foru Aldundiak herritarrentzat interesekoa izango dela pentsatzen duen informazio guztia ere.

Araba Irekia (irekia.araba.eus) izeneko Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Atari berria 2018ko martxoaren 13an jarri zen martxan. Atariko edukiak egituratuta eta modu sinplean antolatuta daude, berrerabili daitezkeen formatuetan, sarbidea errazteko helburuarekin. Edukiak eguneratuak izateaz gain, argitaratu den informazioari buruzko informazio historikoa ere jasoko da bertan, nahiz eta jada gaur eguneko ez izan.


Arabako Foru Aldundiko sail guztiek atarian jasotako eduki guztiak eguneratzen lan egin dute, eta hala, Gardentasun Zerbitzuak eskatutako datu guztiak eman dituzte ondoren argitaratzeko. Sail bakoitzak Foru Aldundiko zerbitzuari dagokion informazioa eman du.

Nahiz eta Araba Irekia orain dela denbora gutxi martxan jarri zen, publizitate aktiboko eremuen araberako sarbideen hurbilketa egin daiteke. Atariaren erabilerari buruzko jarraipena Google Analytics aplikazioaren bitartez egiten da.



Bisita gehien izan dituzten edukiak erakundeari eta bere funtzioei buruzko informazioa jasotzen dutenak izan dira, hauek: Siletako egitura eta maila altuko karguak dituztenei buruzko informazioa eta langile publikoei buruzko informazioa. Gehien kontsultatu den informazioaren artean dago baita ere erakunde publikoei lotutako informazioa, Foru Gobernu Kontseiluari buruzkoa eta aurrekontuei buruzko informazio ekonomikoa.

irekia.araba.eus atarian gehien kontsultatutako edukiak





PUBLIZITATE AKTIBOA

Publizitate aktiboa garrantziko informazio publikoko betebeharrak aldizka eta modu eguneratuan argitaratzeko konpromisoa izatea, informazioa batzea eta hedapen proaktiboa egitea da, herritarrei jarduera helarazteko Foru Administrazio Publikoak ahal duen eta gehien, baita foru sektore publikoko erakundeei buruzkoa ere, botere publikoen kontu emateak hobetzeko helburuarekin.

Informazio hori guztia **Araba Irekia** izeneko atarian argitaratzen da, Gobernu Irekiaren Atarian, eta doan eman behar da, eguneratuta, modu sinplean, argian eta sarbide errazarekin, eraginkortasunez egiten den bezala.

Gardentasuna zeharkako gaia denez, ezinbestekoa da sail guztiak inplikaturik egotea. Erakundeko langile guztiek lan egin behar dute gardentasun gehiago lortzeko helburuarekin, eta gardentasuna antolakuntza kulturaren elementu oinarrizkoenetako bat izan behar da.

Era berean, foru erakunde publikoetako kudeatzaileekin eta erakundeko arduradunekin harremana mantendu da.

Antolamendu dekretuak aldatu dira, eta hala, Arabako Foru Aldundiko sail bakoitzean erreferentziarako pertsona bat dago, eta berak egikaritzen ditu publizitate aktiboarekin eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearekin lotutako funtzioak.

Gardentasun Unitateak honako lan ildoak jarraiki lan egin du:

- 1- Argitaratu beharreko edukiak dauden informazio iturriak identifikatzea.
- 2- Argitaratutako informazioa eguneratzeko prozesuak ezartzea.
- 3- Informazioa sortzean, edozein pertsonak ulertu ahal izateko moduan egitea.
- 4- Gardentasuna dela eta antolakuntza unitate batzuek eta besteek egindako kontsultak kudeatu eta erantzutea.

1/2017 Foru Arauan honako eduki espezifikoa ezarri dira publizitate aktiboko eremu ezberdinetan argitaratzeko:

- **Erakunde informazioa, antolamendu informazioa, plangintzari buruzkoa eta ondareari buruzkoa.**
- **Foru Arau honen aplikazio eremuko erakundeetan erantzukizun gorena duten pertsonen eta goi kargudunen buruzko informazioa.**
- **Garrantzia juridikoa duen informazioa.**
- **Kontratazioari, hitzarmenei eta diru-laguntzei buruzko informazioa.**
- **Ekonomiari, finantzei eta aurrekontuei buruzko informazioa eta informazio estatistikoa.**



A. Erakunde informazioa, antolamendu informazioa, plangintzari buruzkoa eta ondareari buruzkoa (22. artikulua).

1. Erakunde eta antolakuntza informazioa:

- a) Betetzen dituzten eginkizunak.
- b) Aplikatzen zaien araudia.
- c) Antolamendu egitura. Organigrama eguneratua zehaztu behar da, organo guztien arduradunak identifikatuta.
- d) Egoitza non dagoen, jendearen arretarako ordutegia eta harremanetarako bideak.
- e) Langile kopurua: urteko ordainsari osoak, tartearen, mailaren eta lanpostuaren arabera; langile finkoen eta aldi baterako langileen ehunekoak; erantzukizuneko lanpostuak; esleitutako hizkuntza eskakizunak, eta egiaztatutako ehunekoak; eta libreki izendatu eta kargutik kendu daitezkeen konfiantzazko kargudun, aholkulari edo laguntzaile kopurua. Datu horiek guztiak sexuaren arabera xehatu behar dira.
- f) Lan eskaintza publikoa, edo langile beharizanak kudeatzeko antzeko tresnaren bat, eta hautaketa prozesuak.
- g) Liberatu instituzionalak zenbat diren, euren sindikatuen arabera sailkatuta, eta urtean zenbat ordu hartzen dituzten.
- h) Langile publikoei bateragarritasuna baimentzeko edo onartzeko emandako ebazpenak.
- i) Aholkularien eta konfiantzazko karguen zerrenda, baita horien lagapenak ere, lotura organikoa eta funtzioak adieraziz.
- j) Aurkeztutako administrazioarekiko auzi errekurtsioei buruzko urteko txostena.

2. Urte planak eta programak eta hainbat urterakoak:

Foru Administrazioak eta foru erakunde autonomoek argitara emango dituzte helburu zehatzak ezartzen dituzten plan eta programak, urtekoak nahiz urte anitzekoak, eta horiek betetzeko aurreikusitako ekintzak, baliabideak eta epeak. Betetze maila eta lortutako emaitzak aldi behin ebaluatu eta argitaratuko dira, neurketaren eta balorazioaren adierazleekin batera.

Halaber, arau honen aginduz egiten diren ebaluazioak sistematikoki argitaratuko dira; horri dagokionez ez da beste mugarik izango indarreko legerian ezarritakoak baino.

3. Aurreko horiez gainera Arabako Foru Aldundiak informazio hauek ere argitaratuko ditu:

- a) Bere jabetzako ondasun higiezinak eta eskubide erreala daukan ondasun higiezinak zerrenda, eta bakoitzari ezarritako erabilera edo zerbitzua; bakoitza zein saili edo erakunderi atxikita edo zein entitateri lagata dagoen.



b) Parte hartzen duen erakunde publiko eta pribatuen oinarrizko datuen zerrenda. Kasuan kasuko partaidetza mota eta erakunde horien webguneetan sartzeko estekak jarri behar ditu.

Arabako Foru Aldundiak 22. artikuluan argitaratu ditu edukiak.

B. Foru Arau honen aplikazio eremuko erakundeetan erantzukizun gorena duten pertsonen eta goi kargudunen buruzko informazioa (23. artikulua).

a) Pertsona horien identifikazioa, profila eta lan ibilbidea.

b) Urtean jasotzen dituzten mota guztietako soldatak edo ordainsariak; kargua utziz gero, jasotako kalte-ordainak.

c) Beste organo eta erakunde batzuetan dauzkaten karguak edo ordezkariak, eta dauzkaten bestelako kargu publikoak.

d) Organo eskudunak egin beharreko jardueren bateraezintasunaz emandako ebazpenak.

e) Arabako Foru Aldundiko jardueren eta ondasun interesen erregistroen araudian xedatzen denaren arabera, ALHAOn argitaratu beharreko ondasun eta interesen aitorpenak eta sei hilean behin Arabako Batzar Nagusietara aitorpenez bidali beharreko informazioa (kopurua eta motak), aitortu beharra bete ez duten kargudunen kopurua eta kargudunok nortzuk diren. Nolanahi ere, ez dira emango ondasun higiezinak zehazki non dauden adierazten duten datuak, eta titularren pribatutasuna eta segurtasuna bermatuko dira.

f) Erakundeko jardueren agenda, Diputatu Nagusiarena eta Foru Gobernu Kontseiluko kideena zehaztuz, eta gutxienez adieraziz 44. artikuluan adierazitako erregistroan izena emandako pertsonekin edo erakundeekin izandako bilerak edo batzarrak.

g) Diputatu Nagusiak eta Foru Gobernu Kontseiluko kideek nazioartera egindako bidaien ondorengo hilabetez zehar, beraien funtzioak betetzeko egindako bidaiak, horien xedea adieraziz.

Arabako Foru Aldundiak 23. artikuluan argitaratu ditu edukiak.



C. Garrantzia juridikoa duen informazioa (24. artikulua).

- a) Foru arauen proiektuak, araugintzako foru dekretuen proiektuak eta zerga premiazko araugintzako dekretuen proiektuak, eta horiek guztiak sortzeko egiten diren espedienteetako memoriak eta txostenak, betiere Diputatuen Kontseiluaren onarpenarekin.
- b) Araugintzako foru dekretuen proiektuak entzunaldiaren edo jendaurreko informazioaren izapidea egiten denean argitaratuko ditu. Entzunaldiaren edo jendaurreko informazioaren entzunaldia egin behar ez bada, Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeari irizpena eskatzen zaionean argitaratuko da; irizpena emandakoan, publikotasuna aplikatuko zaio.
- c) Herritarren parte hartzea egonez gero, prozesuaren memoria eta ondorioak.
- d) Indarreko legeria sektorialaren arabera izapidetzean jendaurrean jarri behar diren dokumentuak.
- e) Foru Gobernu Kontseiluaren gai zerrendak, aurretiaz, eta Kontseiluak hartutako erabaki guztien laburpenak, hirurogeita hamabi orduko epean.
- f) Arabako Lurralde Historikoan indarrean dagoen araudia; beti egon behar da eguneratuta eta herritarren eskura.
- g) Gidalerroak, jarraibideak, erabakiak, zirkularrak eta norbanakoek edo beste organo batzuek egindako kontsulten erantzunak, baldin eta zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.

Arabako Foru Aldundiak 24. artikuluan argitaratu ditu edukiak.



D. Kontratazioari, hitzarmenei eta diru-laguntzei buruzko informazioa (25. artikulua).

1. Kontratazio jarduerari dagokionez:

a) Kontratu guztiak, horien xedea, iraupena, lizitazioko eta adjudikazioko zenbatekoak, erabilitako prozedura, publiziterako erabilitako tresnak (publiziterik izan bada), kontratazio prozeduran parte hartu dutenen kopurua, adjudikazioa jaso duen pertsonaren edo entitatearen izena, sartutako klausula sozialak eta, horien artean, berdintasun klausulak. Argitara emango dira, halaber, aldaketak eta luzapenak, eta adjudikazio prozeduran atzera egiteko eta kontratuak egiteari uko egiteko erabakiak. Kontratu txikiei buruzko informazioa bi hilean behin argitaratu ahal izango da.

b) Kontratazio entitateak eta organoak (datu hauek adierazita: telefonoa, posta helbidea eta helbide elektronikoa, eta kontratazio mahaien osaera), eta haien aktak eta ebazpenak.

c) Sektore publikoko kontratuen legerian ezartzen diren prozeduretako bakoitzaren arabera adjudikatzen diren kontratuek aurrekontu bolumenean egiten duten ehunekoari buruzko datu estatistikoak.

2. Hitzarmenei dagokienez:

a) Sinatutako hitzarmenen zerrenda. Bertan aipatuko dira alderdi sinatzaileak, xedea, iraunaldia, egindako aldaketak, hitzartutako prestazioak, hitzarmena bete behar duten subjektuak eta, halakorik bada, hitzartutako betebeharrak ekonomikoak, eta sartutako klausula sozialak, tartean berdintasunekoak.

b) Kudeatzeko ardura emateko sinatutako mandatuak, horien xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta egiten diren azpikontratazioak, horien adjudikazioa jaso duten pertsonak edo entitateak, adjudikaziorako erabilitako prozedura eta adjudikazioaren zenbatekoa.

3. Diru-laguntzei dagokienez:

a) Emandako diru-laguntzak eta laguntzak –deialdia aipatu behar da, edo emateko ebazpena, salbuespenezko diru-laguntzen kasuan–, haien zenbatekoa, helburua edo xedea, pertsona onuradunak eta sartutako klausula sozialak, tartean berdintasunekoak.

b) Alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle elkarteentzako diru-laguntzak, martxoaren 27ko 1/1987 Legeak, Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeak, 11. artikuluan aipatzen dituen hauteskunde gastuak finantzatzeko eman zaizkienak. Emandako zenbatekoaren azalpena egin behar da, artikuluko horretan ezarritako moduan.

Arabako Foru Aldundiak 25. artikuluan argitaratu ditu edukiak.



E. Ekonomiari, finantzei eta aurrekontuei buruzko informazioa eta informazio estatistikoa (26. artikulua).

a) Aurrekontuak; aurrekontu partida nagusiak deskribatu behar dira eta haien gauzatze egoerari buruzko informazio eguneratua eta ulertteraza eman behar da, ahalik eta xehatuena. Aurrekontu egikaritzearen publizitatea hilerokoa izango da Arabako Foru Aldundiarentzat eta bere erakunde autonomoentzat, eta 3.1. artikuluan jasotako gainerako erakundeentzat argitalpena hiruhilerokoa izango da.

b) Eman beharreko urteko kontuak, eta kanpoko kontrol organoek kontu horien gainean egiten dituzten auditoretzako eta fiskalizazioko txostenak.

c) Urtero argitaratuko dira likidatutako azken aurrekontuari buruzko finantza eta aurrekontu adierazle hauek:

— Superabita (edo defizita) biztanleko (aurrekontu emaitza doitu / biztanle kopurua).

— Autonomia fiskala (zerga bidezko diru sarreraren aitortutako eskubide garbiak / aitortutako eskubide garbiak, guztira).

— Proporzioa, Foru Aldundiaren finantzaketarako beharizanaren/gaitasunaren (kontabilitate nazionalaren arabera) eta lurraldeko finantza diru sarreraren edo barne produktu gordinaren (BPGd) artean.

— Biztanle bakoitzeko diru sarrera fiskalak.

— Inbertsioa biztanleko.

— Kobrantzarako batez besteko epea.

— Zorpetzea biztanleko.

— Zorpetze erlatiboa, honi dagokion portzentaje gisa kalkulatuta: zenbat diren zor osoa eta epe luzerako maileguak diru sarrera arruntekiko.

— Fakturak ordaintzeko batez besteko epea.

— Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) dela eta itzuli beharrekoa (hileroko itzulketen erregistroa) itzultzeko urteko epe ertaina.

2. Aurrekoen gainera Arabako Foru Aldundiak informazio hauek ere argitaratuko ditu:

a) Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza jasangarritasunaren arloko helburuak betetzeari buruzko informazioa.



b) Diru sarrerekin eta gastuekin lotutako oinarrizko informazio hau: zerga sarrerak; biztanle eta udalerrien arabeko gastua eta inbertsioa; eta hornitzaileei egindako ordainketa aldien betetzea.

c) Foru sektore publikoaren finantzaketari buruzko oinarrizko informazioa (finantzatzeko tresnak aipatu behar dira).

d) Arabako Foru Aldundiaren zorra, horren bilakaera denboran zehar, epeak eta oinarrizko ezaugarriak, biztanle bakoitzeko zorra eta zor erlatiboa; eta Aldundiak bere merkataritza sozietateei baimendutako zorpetze eragiketak.

e) Abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearenak, 100. artikuluan xedatzen duenaren arabera Arabako Foru Aldundiak emandako abalak.

f) Publizitate instituzionaleko kanpainetan egindako gastu publikoa. Hautatutako euskarria eta komunikazio bidea aipatu behar dira.

g) Aldundiaren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze maila eta kalitatea baloratu ahal izateko behar den informazio estatistikoa.

Gardentasun gehiago egoteko, herritarrentzako interesgarria izan daitekeen gainerako informazio publikoa gehitzea sustatuko da. Maiz eskatzen den informazioa ere gehitu egingo da.

Arabako Foru Aldundiak 26. artikuluan argitaratu ditu edukiak.



Arabako Foru Aldundiaren erakunde publikoak

1/2017 Foru Arauaren 29. artikuluan adierazten den bezala, 3.1. artikuluan zerrendatutakoek beharrezko neurriak hartuko dituzte Gobernu Irekiaren Atarian publizitate aktiboari lotutako informazioa modu progresiboan gehitzen dela bermatzeko, ahalik eta modu zabalenean eta sistematikoenean.

Hauek dira Arabako Foru Aldundiaren menpeko erakunde publikoak:

- ARABA GARAPEN AGENTZIA
- ALDALUR ARABA SL
- ARABAT – Arabako Bideak SA
- ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK
- ARABAKO KALKULU ZENTROA
- ARABAKO ARTIUM FUNDAZIOA
- SANTA MARIA KATEDRELAKO FUNDAZIOA
- KIROLARABA FUNDAZIOA
- AÑANAKO HARAN GAZIA FUNDAZIOA
- INDESA 2010 SL
- GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA
- GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA
- NATURGOLF SA



INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKAERAK

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen egikaritzea Arabako Lurralde Historikoko Sektore Publikoaren Gardentasun, Herritarren Parte hartze eta Gobernu Onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 30. artikuluan dago jasota, eta pertsona fisiko eta juridiko guztiek Arabako Foru Aldundian eta foru sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeetan dagoen informazio publiko guztia eskuratzeko eskubidea aintzatesten da, informazioa eskatzeko justifikaziorik egin behar izan gabe.

Informazio publikoa foru sektore publikoko erakundeek dutena da (Foru Aldundiak, erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta foru fundazioek) eta beraien funtzioak egikaritzeko sortu, aldatu edo eskuratu dutena.

Informazio publikoa eskuratzeko eskariak Internet bidez egin daitezke, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa, edo modu presentzialean erregistroan.

Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak hartzea gardentasun unitatearen kargura izango da, eta bertan, gaia oinarri hartuz, eskumenak dituen antolakuntza unitatea identifikatuko da. Era berean gardentasun unitateak sailei aholkularitza emango die izapidetze fase ezberdinei buruz, eta eskarien jarraipena eta kontrola gauzatuko du.

Eskariak barneko mailan izapidetzeko berariazko espedienteen kudeatzaile digitala egongo da eta informazio publikoko eskariak izapidetuko ditu.

Informazio eskari horiek izapidetzeko unitateak eta ebazpen proposamenak egingo dituztenak hauek dira:

- **Foru Aldundian:** Egitura organiko eta antolakuntzako foru dekretuan adierazitako administrazio unitateek kudeatu eta ebatziko dituzte.
- **Foru sektore publikoko gainerako erakundeetan:** Atxikita dauden saileko administrazio unitateak, egitura organiko eta funtzionalaren arabera.

Helburua erakunde honetako pertsona guztiek Foru Aldundiak hartutako gardentasun konpromisoak beraien gain hartzea da.




Eskaria ebazteko organo eskumenduna saileko diputatu titularra da, foru agindu bidez izapidetu duena, edo foru dekretua Diputatu Nagusiaren kasuan. Ebazteko epea hilabetekoa izango da, eta beste hilabete bat luzatu ahal izango da informazio bolumenak edo konplexutasunak hala eskatzen duenean eta eskatzaileari aurretiaz horren berri emanda.

Informazio publikoa guztiz eskuratu ahal izateko printzipioa oinarri hartuta, arau orokorra gardentasuna edo sarbidea izatea izan beharko da. Hala ere, 1/2017 Foru Arauak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ez onartzearen eta mugatzearen arrazoen zerrenda xehatua jasotzen du. Era berean, datu pertsonalak babesteko araubidea beteko da.

Hona hemen 2017an jasotako eskariei buruzko informazioa:

1) 2017an **Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskari Kopurua** 21ekoa izan da.





2) Sail bakoitzeko **gehien kontsultatu diren** gaiak hauek izan dira:

- **Diputatu Nagusia:**

Kontsulta Batzordearen Irizpenak.

- **Ekonomia Garapena eta Lurralde Oreka Saila:**

Foru Suhiltzaileentzako deialdietako oinarri espezifikoak, azterketak eta erantzunak, 2000. urtetik gaur egunera arte.

- **Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapena eta Foru Administrazioa Saila:**

Osagai teknologikoak e-administrazioa plataforma.

- **Euskara, Kultura eta Kirola:**

1- "Diktadura frankistak zigortutakoei egindako omenaldia" monolitoan agertzen direnen zerrenda.

2- 2015-2016 ikasturteko datuak.

- **Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak:**

Datu ekonomikoak.

- **Bide Azpiegiturak eta Mugikortasuna:**

Garraioari buruzko datuak.

- **Ingurumen eta Hirigintza Saila:**

Ingurumen arau hausteei buruzko irekitako espedienteak.

- **Gizarte Zerbitzuak:**


Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak foru baliabideak kudeatzearen inguruan sinatutako lankidetzak hitzarmenak.

- **Nekazaritza:**

Arabako aisialdi arrantzari buruzko informazio kartografikoa.



3) Eskerak **ebaztea**:



- Informazio publiko eskaerak ebazteko batez besteko epea 27 egunekoa izan da.
- Partzialki onetsitako eskaeren arrazoiak hauek izan dira:
 - Datu pertsonalak babesteagatiko onepen partziala.
 - Informazioa hedatzeko aurretiaz berriz ere sortzea behar duenari buruzko eskaria.
- Onartu ez diren hiru eskariei dagokienez adierazi behar da sailek aurretiaz zuzenketak egiteko eskatu zutela prozedurarekin jarraitu ahal izateko. Eskatzaileek ez zituzten zuzenketa horiek egin.
- Bestelako bi eskariei dagokienez, bata erantzuteko eskuduna den administraziora bideratu da eta besteren kasuan, eskatzaileak eskariari uko egin dio.

4) Eskatzaileen **profilari** dagokionez:

- Adina: Ezezaguna.
- Sexua: 18 gizon eta 3 emakume.
- Hizkuntza: 20 gaztelaniaz eta 1 euskaraz.



ONDORIOAK

Gardentasun, Herritarren Parte Hartze eta Gobernu Onari buruzko 1/2017 Foru Araua onestean kudeaketa publikoko eredu berri bat ezarri nahi da, eta jarduera publikoan gardentasunaren kultura sustatzeko eta bultzatzeko beharra azpimarratzen da.

Ilido horri jarraikiz, baieztatu behar da gaur egun Foru Arauaren betebeharrak eskatzen duten eduki ia guztiak argitaratuta daudela, sortzen ari diren foru sektore erakundeei buruzko zenbait eduki salbuetsiz. Bestalde, esfortzu handia egiten ari gara modu progresiboan derrigorrez bete behar den eta Arabako herritarrentzat interesekoa den informazio publiko guztia gehitzeko. Eduki osagarri horietako zati bat Gobernu Irekiaren Atarian dago, **Araba Irekia** izenekoan, zehazki **“Informazio Publikoko Katalogoan”**.

Informazio publikoa eskuratzeari dagokionez, pixkanaka gehituko da informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egikaritzuz eman den informazio guztia.

Gaur egun lanean ari gara gardentasunarekin eta informazio publikoa eskuratzearekin lotutako hobekuntzak egiteko, hurrengo asteetan argitaratuko diren hauek:

- **Araba Irekia** atariko edukiak gehitzea eta hobetzea.
- Aurrekontuak modu grafikoan ikusi ahal izatea.

Gainera, honako alderdiak garatzen jarraitu da:

- **Araba Irekia** atarian lanean jarraitzea herritarrei sarbidea errazteko.
- Belaunaldi berriko eduki guztiak formatu berrerabilgarrietan argitaratzea.
- Antolakuntza eta prozedura ekintzak zehaztea gardentasun gehiago izateko informazioa trukatzeko delat bermatzeko.
- Sektore publikoko erakundeetako zuzendaritzekin eta kudeatzailetzekin komunikazio bideak finkatzea publizitate aktiboari eta informazio publikoa eskuratzeari dagokionez.
- Gardentasuna bultzatzea antolakuntza mailan (kargu publikoak eta langile publikoak) eta kanpoko mailan (herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak).

Gardentasunaren eta informazio publikoaren alorrean lortutako aurrerakuntzak azken urte honetan horiek sustatzeko lan egin duten administrazio unitateek egindako lanaren ondorioz gertatu dira. Ilido horretan, gardentasun osoa eta iraunkorra kudeatzeko lan egiten ari gara, helburu argi hau lortzeko: administrazio publikoa geroz eta arduratsuagoa izateko lanean jarraitzea.